

# Jatorrizko jarraibideak



**MATI ITURRALDE**  
MEDIKUA

**A**meriketako herri indigena batzuek sortu zituzten *jatorrizko jarraibideak*, planetan bizitza zaintzeko. Horien artean dago Potawattomie herria, edo *eskertzen dakien herria*. *Jatorrizko jarraibide* horiekin elkarrekiko harremanak antolatzen zituzten, bai eta haien inguruko edozein motatako bizitza ere. Leinu horretakoek pentsatzen zuten komunitateari eta lurrari eskatzen zitzaiena modu batean edo bestean berriro itzuli behar zitzaizela. Halaber, argi asko zuten zeinek zaintzen zituen komunitateko kideak, eta zeinek ez.

Egungo munduan, horrelako kulturei leku gutxi geratu zaie. Izan ere, kapitalismoak eta kolonialismoak herri indigenei desplazamenduak inposatu zizkieten, eta horrela, haien ohitura eta sustraiak desagertzeko zorian daude. Hala ere, mendeetan, herri indigena horiek beren modura gainditu dituzte klaseen arteko borroka eta genero diskriminazioa; azken finean, komunitatearen elkar zaintzak ez baitie biderik ematen esplotazioari edo pertsonen arteko ezberdintasunari.

Gure herrian ere, sistema kapitalistaren garapenaren ondorioz, desplazamendu asko inposatu dizkigute. Gure lurraren eta komunitatearen arteko loturak gero eta ahulagoak dira. Herri bezala, planeta honetan bizitzeko *jatorrizko jarraibideak* galtzen ari gara, hau

da, elkar zaintzeko trebetasuna eta eza-gupideak.

Gauzak dezente koropilatu dira, eta denbora luzea eman behar izan dugu gure esparru ideologikoa finkatzen. Aspaldian kapitalismoaren bozeramaileek ideologiaren heriotza deklaratu arren, Euskal Herrian hamaika ildo politiko berri agertu dira. Orain dela hamarkada batzuk, oro har, bi ziren hizpide nagusiak: giza klase batekoa izatea eta herri identitatea. Eta horien arabera, aukeratu genuen non kokatu gure zaintza eremuak, geuretzat eta gure ondokoentzat. Baina, orain, gure aldameneko edozein persona edo talde etsai bihurtzen dugu. Edozein ahots ezberdin segidan baztertzen dugu, bere esparru ideologikoa ukatuz, eta, agian, ez gara konturatzen halako jarrerarekin poliki-poliki gure jatorrizko komunitatea desagiten ari dela.

Nire ustez, indigenen *jatorrizko jarraibideak* aplikatuko bagenitu herri bezala, askoz argiago geratuko litzateke zeinek zaintzen dituen benetan gure herriko pertsonak eta ingurua, eta zeinek soilik nahi duen sistemaren barruan bere lekuari eutsi; zeinek defendatzen dituen bere pribilegioak, eta zein saiatzen den guztion bizitza defendatzen komunitate bezala. Baliteke begirada sinpleegia izatea, baina lurra lokazten denean, niri, behintzat, nire lekua aurkitzen laguntzen dit. ●

## Tanaru



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

**Z**uloko india' izengoitia zeukan gizona zendu da uda honetan. 1990eko hamarkadaz geroztik Amazonian eratorrian ibiltzen zen, bata bestearen ondotik, bere sendiko kideak oro desagertzen ziren arau. 2018an, Funai erakunde brasildarreko teknikari batek gizon horrekiko topaketa furtiboaren argazkia hartu zuen. Ez zen sekula izan Tanaruren tribuarekiko harremanik, aterpeak eta bizitokiak lur pean zulatzen zituztelako. Horregatik izengoitia.

Iragan agorrrilaren 23an hilik atzeman zuten Boliviako mugetan. Hogeita hamar urteotan 8.000 hektareako ere-

muan zehar galtzen zen, oinez, inguruan bere lurraldea jaten, ausikitzen, suntsitzen zebilzkiola urre bilatzaile eta basoak erauzteko enpresa ilegalak. Ba omen dira, Brasilen, giza zuriarekiko kontakturik ez duten jendalde autoktonoekiko 114 leku. 800.000 indigena baizik ez dira gelditzen herrialde erraldoi horren bihotzean.

Bakartasunik handienez joan da beraz Tanaru, bere jendaldeko azken irau-lea. Ezin uka genozidio bat izan zela, nahitara egin zena, gure mahaietako haragia eta gure autoetako bioenergiak ekoizteko lur gosez zetozen abere hazleen eskutik.

Gogoan atxiki dezagula... ●